

Elkargoaren Urteko Kuotak Kobratzeko / Itzultzeko Protokoloa (1. aldaketa)

Prokolo honen bitartez, **Elkargoko Kuotak Kobratzeko eta Itzultzeko Poilitikaren** orientazio eta kudeaketaren aldaketa partziala egin nahi da, **2013ko otsailaren 4az geroztik indarrean zeuden Alta, Baja eta Elkargo-aldaketa eskaeren** aurrean.

Aintzakotzat hartu ditu zehatz-mehatz Elkargo Profesionalei buruz **Elkargoaren Estatutueta**n zein Legerian indarrean dauden arauak eta artikulak, baina proportzionaltasunari dagozkion kalkulu batzuk aldatu ditu, aurreko artikuluen (2013ko otsailaren 4ko **J-068/2013** Gobernu Batzordean proposatu eta onartutakoak) aplikazioak eragindako balizko bidegabekeria-egoerei eta kexei erantzun hobea eta egokiagoa emateko asmoz.

AURKIBIDEA

- | | |
|--|---------|
| 1. Sarrera | 2. orr. |
| 2. Kudeaketa Protokoloa | |
| 2.1.- Elkargoan Alta Eskatzea | 3. orr. |
| 2.2.- Elkargoan Baja Eskatzea | 4. orr. |
| 2.3.- Elkargo Aldaketa Eskatzea | 5. orr. |
| 3. Indarrean sartzea | 8. orr. |

1.- SARRERA

***Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren Estatutuetan** zehaztutakoaren arabera,
"Gobernu Batzordeari dagokio elkargoaren zuzendaritza eta administrazioa, bai eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak egikaritzea ere. Gobernu Batzordearen eskumenak honako hauek dira:

- a) Biltzar Nagusiaren erabakiak, estatutuak eta legeria bete eta betearaztea.
- b) Elkargoratzeko eskaeren gainean erabakiak hartzea.
- c) **Aldizkako kuoten zenbatekoa** finkatzea.
- d) Elkargoaren ondasunak administratzea, bai eta **kideek ordaindu beharreko kuotak** biltzea ere.

(Elkargoaren Estatutuetako **28. artikulua**. Ikus oin-oharra)

***Inskripzio** kuotak –Elkargoko sartze-eskubideak– eta Elkargoari **eusteko urteko kuotak** –ohiko eta ezohiko kuotak, derramak barne– dira Elkargoaren baliabide arruntak osatzen dituzten funtsak.

(Elkargoaren Estatutuetako **48. artikulua**. Elkargoaren Estatutuak. Ikus oin-oharra)

*Elkarteari eusteko urteko kuotak aldizka kobratuko dira, eta ondorioz, Gobernu Batzordeari egokituko zaio, elkargokidetze eskaerei buruzko erabakiarekin batera, zenbateko horiek finkatu eta biltzea.

(Elkargoaren Estatutuetako **28. artikulua**. Ikus oin-oharra)

*Elkargokideak ezarritako epean ordaindu behar ditu Elkargoari eusteko onartutako ohiko zein ez-ohiko kuotak eta eskubideak



Elkargoko Kuotak Kobratzeko / Itzultzeko Protokoloa
1. aldaketa^a
2016ko otsailak 25
EFEOko Idazkaritza

(Elkargoaren Estatutueta 19. artikulua. Ikus oin-oharra)

***Gasteizen, 2013ko otsailaren 4an, astelehenez, egindako J-068/20123 zenbakiko ohiko bileran, Gobernu Batzordeak** ontzat hartu du Elkartearen urteko kuotak Kobratzeko / Itzultzeko Protokoloa, Alta, Baja zein Elkargo aldaketarako eskaeren aurrean.

2.- PROTOKOLOA

2.1.- ELKARGOAN ALTA ESKATZEA.-

*Aintzakotzat hartuko da "**hiruhileko proportzionaltasuna**" uneko seihilekoari dagokion kuota kalkulatzeko.

***EGUTEGIra begira:**

-Elkargokidetze eskaera **urtarrilararen 1etik martxoaren 31ra bitartean** jasotzen bada, biak barne, elkargokideak lehen seihileko horri dagokion zenbateko osoa ordaindu beharko du.

-Elkargokidetze eskaera **apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean** jasotzen bada, biak barne, elkargokideak lehen seihileko horri dagokion zenbatekoaren % 50 baino ez du ordaindu beharrik izango.

-Elkargokidetze eskaera **uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean** jasotzen bada, biak barne, elkargokideak bigarren seihileko horri dagokion zenbateko osoa ordaindu beharko du.

-Elkargokidetze eskaera **urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartean** jasotzen bada, biak barne, elkargokideak bigarren seihileko horri dagokion zenbatekoaren % 50 baino ez du ordaindu beharrik izango.



2.2.- ELKARGOAN BAJA ESKATZEA.-

*Aintzakotzat hartuko da "**hiruhileko proportzionaltasuna**" uneko seihilekoari dagokion itzulketak kalkulatzeko.

***EGUTEGIra begira:**

-Elkargoan Baja emateko eskaera **urtarrilararen 1etik martxoaren 31ra bitartean** jasotzen bada, biak barne, EFEOk urteko lehen seihilekoari dagokion zenbatekoaren % 50 itzuliko du, ordainketa aginduta eta eginda badago.

-Elkargoan Baja emateko eskaera **apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean** jasotzen bada, biak barne, EFEOk ez du urteko lehen seihilekoari dagokion kobrantzako ezein zenbatekorik itzuliko.

-Elkargoan Baja emateko eskaera **uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean** jasotzen bada, biak barne, EFEOk urteko bigarren seihilekoari dagokion zenbatekoaren % 50 itzuliko du, ordainketa aginduta eta eginda badago.

-Elkargoan Baja emateko eskaera **urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartean** jasotzen bada, biak barne, EFEOk ez du urteko bigarren seihilekoari dagokion kobrantzako ezein zenbatekorik itzuliko.

2.3.- ELKARGO ALDAKETA ESKATZEA.-

*EFEOk partzialki onartu ditu, Idazkari Nagusiek 2008ko urtarrilaren 25ean Tarragonan egindako Informazio Bileraren Aktako Gai-Zerrendako lehen puntuari onartutako **Espedienteak Lekualdatzeko** Protokoloa eta **Administrazio-Prozedura Bateratzea**. (Ikus oin-oharra)

Gaia borondatezko bilera batean aztertu zen, eta ondorioz, erabakia ez da loteslea.

 **ESEO lekualdatzearen JATORRIZKO Elkargo Profesional bezala:**

***GARRANTZITSUA:** Interesatuta dagoen elkargokideari, **beste autonomia-erkidego batzuetan elkargokidetzeko araudi aplikagarriaren** haritik dauzkan eskubideak ezagutaraziko zaizkio, horri dagokion Laburpen Agiria emanaz. **Erantsitako 1. dokumentua** izenaz gaineratu zaio Protokolo honi.

*INFORMAZIOA jaso ondoren, bi aukera izango ditu:

1.- Elkargokideak Elkargo Aldaketa egiteko eskaera berrestea:

*Elkargo Aldaketa egiteko eskaerak bilera hartan diseinatutako eta adostutako Dokumentuaren bidez tramitatu behar dira. **Erantsitako 2. dokumentua** izenaz gaineratu zaio Protokolo honi.

Kasu honetan, EFEOk Elkargo Aldaketa egiteko eskaera berehala aktibatzeari ekingo dio, **uneko seihilekoaren hileko proportzionaltasuna** beteko duen Itzulketak Protokologoa aintzakotzat hartuz.

Beraz:

-Lekualdatze eskaera (helburuko elkargoan Alta emateko eskaera) uneko seihilekoaren lehen hilabetean egiten bada (hau da, **urtarrilean** edo **uztailean**), ordaindutako seihileko kuotaren 5/6 itzuliko da.

-Lekualdatze eskaera (helburuko elkargoan Alta emateko eskaera) uneko seihilekoaren bigarren hilabetean egiten bada (hau da, **otsailean** edo **abuztuan**), ordaindutako seihileko kuotaren 4/6 itzuliko da.

-Lekualdatze eskaera (helburuko elkargoan Alta emateko eskaera) uneko seihilekoaren hirugarren hilabetean egiten bada (hau da, **martxoan** edo **irailean**), ordaindutako seihileko kuotaren 3/6 itzuliko da.

-Lekualdatze eskaera (helburuko elkargoan Alta emateko eskaera) uneko seihilekoaren laugarren hilabetean egiten bada (hau da, **apirilean** edo **urrian**), ordaindutako seihileko kuotaren 2/6 itzuliko da.

-Lekualdatze eskaera (helburuko elkargoan Alta emateko eskaera) uneko seihilekoaren bosgarren hilabetean egiten bada (hau da, **maiatzean** edo **azaroan**), ordaindutako seihileko kuotaren 1/6 itzuliko da.

-Lekualdatze eskaera (helburuko elkargoan Alta emateko eskaera) uneko seihilekoaren azken hilabetean egiten bada (hau da, **ekainean** edo **abenduan**), ez da itzulketarik egingo, seihilekoa behar bezala ordainduta dagoela ulertuko baita.

ITZULKETEN HILEKO PROPORZIONALTASUNA

	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe
SEIHILEKO KUOTA	5/6	4/6	3/6	2/6	1/6	0	5/6	4/6	3/6	2/6	1/6	0

2.- Elkargokideak helburuko autonomia-erkidegorako Lekualdatze Eskaera uneko seihilekoa amaitu ondoren aktiba dadila eskatzea:

Behin-behinekotasuna argudiatuta, Lekualdatze Espedientea uneko seihilekoa amaitu arte atzeratuko da, eta ondorioz, ez da itzulketarik egin beharrik izango.

EFEO lekualdatzearen helburuko Elkargo Profesional bezala:

*Beste autonomia-erkidego batetik igorritako Lekualdatze Eskaeraren bat jasotzekotan,

EFEOk berehala eta eskaera jaso eta **15 eguneko** gehienezko epean, lekualdatzea onartu izanaren ziurtagiria bidaliko du jatorrizko Elkargora.

*Era berean, Elkargoan Alta emateko Protokoloa aktibatuko da elkargokide berriarentzat.

*EFEOk ez du Inskribatzeko kuotarik eskatuko, kuota hori behin baino ez dela ordaintzen eta aurretiaz beste Elkargo batean ordaindu dela iritzita.

*Urteko sostengatze-gastuei dagokien zenbatekoa kobratuko da, **bi elkargoetan ordaindutako epealdiak ez bikoizteko eta uneko seihilekoaren hileko proportzionaltasuna** aplikatzeko irizpideari eutsiz, jatorrizko Elkargoan ordaindutako ohiko kuoten zenbatekoa eta epealdia egiaztatu ondoren.

Honela, profesionalak epealdi bereko kuota bi erakundeetan ordaindu izana saihestu nahi da.

Beraz:

-Lekualdatze eskaeran egiaztatzen bada jatorrizko Elkargoan hilabete 1 ordaindu dela, EFEOk gure seihileko kuotaren 5/6ko balioa duen kobrantza egiteari ekingo dio.

-Lekualdatze eskaeran egiaztatzen bada jatorrizko Elkargoan 2 hilabete ordaindu direla, EFEOk gure seihileko kuotaren 4/6ko balioa duen kobrantza egiteari ekingo dio.

-Lekualdatze eskaeran egiaztatzen bada jatorrizko Elkargoan 3 hilabete ordaindu direla, EFEOk gure seihileko kuotaren 3/6ko balioa duen kobrantza egiteari ekingo dio, hots, seihilekoaren erdia.

-Lekualdatze eskaeran egiaztatzen bada jatorrizko Elkargoan 4 hilabete ordaindu direla, EFEOk gure seihileko kuotaren 2/6ko balioa duen kobrantza egiteari ekingo dio.

-Lekualdatze eskaeran egiaztatzen bada jatorrizko Elkargoan 5 hilabete ordaindu direla, EFEOk gure seihileko kuotaren 1/6ko balioa duen kobrantza egiteari ekingo



Elkargoko Kuotak Kobratzeko / Itzultzeko Protokoloa
1. aldaketa^a
2016ko otsailak 25
EFEOKo Idazkaritza

dio.

3.- INDARREAN SARTZEA.-

***Elkargoko Kuotak Kobratzeko eta Itzultzeko Protokolo** hau, atzeraginez, **2016ko martxoaren 16an** indarrean sartzea onartu da.

Roberto Romero Soto Jn.
EFEOKo Idazkaria

O.E. Jon Herrero Erquiñigo Jn.
EFEOKo Presidentea



Oharra

AGINDUA, 2012ko martxoaren 12koa, Justizia eta Herri Administrazioi sailburuarena, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren estatutuen aldaketa onartzen duena.

– **EHAAn 2012ko apirilaren 4an** argitaratutakoa

19. artikulua.– Elkargokideen betebeharrak.

[...]

b) Elkargoak bere iraupenerako onartutako kuotak eta eskubideak, ohikoak nahiz ohiz kanpokoak, ezarritako epeetan ordaintzea.

25. artikulua.– Akta-liburua eta Urteko Txostena.

[...]

2.– Ahalik eta gardentasun handiena lortzeko, Gobernu Batzordeak Urteko Txosten bat prestatuko du, eta txosten horretan, gutxienez, informazio hau egongo da:

[...]

b) Kontzeptuka eta emandako zerbitzu-motaren arabera banakaturik aplikatu behar diren kuoten zenbatekoa, bai eta zenbateko hori kalkulatzeko eta aplikatzeko arauak ere.

26. artikulua.– Biltzar Nagusiaren eskumenak.

[...]

i) Aldizkakoak ez diren kuotak eta derramak onartzea.

28. artikulua.– Gobernu Batzordearen egitekoak.

Gobernu Batzordeari dagokio elkargoaren zuzendaritza eta administrazioa, bai eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak egikaritzea ere. Gobernu Batzordearen eskumenak honako hauek dira:

a) Biltzar Nagusiaren erabakiak, estatutuak eta legeria bete eta betearaztea.

b) Elkargoratzeko eskaeren gainean erabakiak hartzea.

c) Aldizkako kuoten zenbatekoa finkatzea.

d) Elkargoaren ondasunak administratzea, bai eta kideek ordaindu beharreko kuotak biltzea ere.

48. Artikulua.– Elkargoaren ekonomia-baliabideak.

1.- Elkargoaren fondoak baliabide arruntez eta apartekoez osaturik egongo dira.

2.- Baliabide arruntak hauek izango dira:

[...]

c) Sartze-eskubideak eta ohiko eta ezohiko kuotak, derramak barne.

3.- Aparteko baliabideak hauek izango dira:

[...]

c) Korporazio-kargak kentzeko kuota bereziak.

Idazkaritza Nagusien arteko Informazio Bilera.
AC Tarragona Hotela -Erroma Etorbidea, 8, Tarragona
2008ko urtarrilaren 25ean

1.- ELKARGOAREN DOKUMENTAZIOA. ESPEDIENTEA LEKUALDATZEKO PROTOKOLOA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURA BATERATZEA

Elkargoen eguneroko jardunari atxikitako hainbat dokumenturen ekarpenak aurkeztu dira.

1) Espedientea Lekualdatzea.

Espedientea lekualdatzeari dagokionez, prozedura erraztuko duen eskaera bakarra egitea proposatu da, ondoren zehaztu den erara:

a) **Eskaera jatorrizko elkargoen ematea**, elkargokideei eskabidea errazteko eta helburuko elkargoan behar dituzten hainbat dokumentu jatorrizko elkargoan bildu eta bidali ahal izateko, elkargokideari kudeaketak errazte aldera.

Helburuko elkargoan jaso eta 15 eguneko epean, bertan alta emateari ekingo zaio, esleitutako elkargokidetze-zenbakia ziurtagiri bidez jakinaraziz, nahiz eta gerora Gobernu Batzordeak berretsi beharko duen. Behin-behineko alta izango da, aipatutako berrespena egin arte.

b) **Jatorrizko elkargoan bertan**, elkargokideak lekualdatze-eskaera entregatu eta helburuko elkargoan alta emateko behar dituen dokumentuak aurkeztuko ditu. Helburuko elkargoak eskaeraren bidalketa erraztuko dio jatorrizko elkargoari. Helburuko elkargoak 15 eguneko epea izango du erantzuna emateko.

c) **Ordaintzeko prozedurak:**

Irizpideak bateratzearen eta elkarkideen kuotak ordaintzeko dagoen ordainketa-moduen aniztasuna kontuan izanda, honako hau onetsi da:

*Egiazko altaren data hartuko da erreferentziazat, hau da, helburuko elkargoak bidalitako alta-ziurtagiriarena. Hilabeteko lehen hamabostaldia baldin bada, ondorio ekonomikoak hurrengo hilabeteko lehenengo egunean hasiko dira. Altaren data lehen hamabostaldiaz gerokoa baldin bada, ondorio ekonomikoak ondoko bigarren hilabeteko lehenengo egunean hasiko dira:

Adibidea: - otsailaren 5eko altaren ondorio ekonomikoak martxoaren 1ean hasiko dira.

- otsailaren 17ko altaren ondorio ekonomikoak apirilaren 1ean hasiko dira.

*Kuotak jatorrizko elkargoan ordainduta badaude, honek ez dagozkion kuoten itzulketa egin beharko dio elkargokideari. Helburuko elkargoak arestian aipatutako datetan hasiko da kuotak kobratzen.

* Prozesua erraztearen, elkargoek elkargokidetzea egiteko behar diren dokumentuak bidali beharko dizkiete idazkaritza nagusiei.



Elkargoko Kuotak Kobratzeko / Itzultzeko Protokoloa
1. aldaketa^a
2016ko otsailak 25
EFEOko Idazkaritza

* Egokitzen jo da lan-bizitza eskatzea, lekualdatze-eskaera egitean elkargokideak duen egoera ezagutu ahal izateko.

* Espedientea lekualdatzeko eskaera-eredu bat proposatu da, Gaztela eta Leongo Idazkaritza Nagusiak bidalitako dokumentua ontzat hartuta.

ERANSKINAK

Erantsitako 1. dokumentua.- Elkargokidetzea autonomia erkidegoz aldatzeko Araudi Aplikagarria.

Erantsitako 2. dokumentua.- "Elkargoko Espedientea Lekualdatzeko Eskaera" esparru-dokumentua



ELKARGOKIDETZEA AUTONOMIA ERKIDEGOZ ALDATZEKO ARAUDI APLIKAGARRIA

Zerbitzu profesionalak liberalizatu eta Elkargokidetze profesionalak ezarritako mugapen geografikoetatik askatzea xeden duten lege-aurreproiektuak abian dauden arren, gaur egun, derrigorrezkoa da **elkargo desberdinen Estatutuak** aplikatzea **Elkargo Profesionalei buruzko Legea** garatzeko. Lege horren arabera, elkargokidetzea bakarra izan daiteke Estatu osorako, baina fisioterapeutaren helbide profesionalari edota jarduera profesional nagusia egiten den helbideari atxikita egon behar du.

Kontratazioa edo zerbitzua aldian aldikoa balitz, edota kontratuak iraupen mugatua balu, interesdunaren jarduera nagusitzat ezin jotzeko moduan, Espedientea eta Elkargokidetzea Lekualdatzeko obligaziotik salbuetsita egongo litzateke, jatorrizko elkargokidetze bakarrari eutsiz. Horren haritik, Erantzukizun Zibileko Asegurua bezalako gai garrantzitsuetan, ondo gogoan hartu behar dira era horretako salbuespeneak eta autonomia erkidegoaz gaindiko estaldurak.

Hala ere, gomendagarria litzateke, eta halaxe jakinarazi dugu Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialetik, aparteko baldintza hori bigarren mailako edo aldian aldiko jarduera egingo den lurraldeko Elkargo Profesionalari ezagutaraztea, EFEOren Idazkaritzari Elkargokidetze-Ziurtagiria eskatuz behar izatekotan.

Aitzitik, elkargokideak bere geroko jarduera edo zeregin profesionala behin-behinekotzat joko ez balu, edota *a priori* behin-betiko jarduera nagusitzat joko balu, derrigorrezkoa izango da jatorrizko Elkargoari (EFEOri) Espedientea eta Elkargokidetzea jarduerako lurraldeari dagokion Elkargora Lekualdatzeko eskaera egiteal.

ARAUTEGI APLIKAGARRIA

2/1974 Legea, otsailaren 13koa, Elkargo Profesionalei buruzkoa.

Derrigorrezkoa izango da EAEn elkargokide izatea helbide profesional bakarria edo nagusia bertan kokatuta dagoenean. (2/1974 Legea, otsailaren 13koa, Elkargo Profesionalei buruzkoa. **3. Art., 2. zatia.** “Lanbide bat Lurralde Elkargoetan antolatuta dagoenean, aski izango da elkargo horietako batean sartuta egotea Estatuko lurralde osoan jarduteko, eta elkargo hori helbide profesional bakarria edo nagusiari dagokiona izango da...”).

AGINDUA, 2012ko martxoaren 12koa, Justizia eta Herri Administrazioaren sailburuarena, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargoaren ESTATUTUEN aldaketa onartzen duena.

12. artikulua.– Elkargokide egiteko betebeharra.

1.– Lanbidean legez aritzeko, ezinbestekoa izango da Elkargoko kide izatea (helbide bakarria edo nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan izanez gero), eta legeetan eta estatutuetan eskatzen diren baldintzak beteta izatea.

2.– Administrazio publikoarekin zerbitzu bidezko harremana –zuzenbide administratiboz edo laborez arautua– duten profesionalak ezin izango dira ezinbesteko baldintza hori. Hala ere, ezinbestekoa izango da elkargoko kide izatea, eremu pribatuan lanbidean aritzeko.

3.– Beste autonomia-erkidego batzuetan ere aritzen diren profesionalak ezinbestekoa izango dute elkargo honetan sartzea, baldin eta lanbide-egoitza nagusia EAEn badago, hala xedatuta baitago *Elkargoari buruzko 1974ko otsailaren 13ko 2/74 Legea*.

13. artikulua.– EAetik kanpoko elkargoetan inskribatutako profesionalak.

1.– Espainiako edozein fisioterapeuta-elkargotik inskribatutako profesionalak elkargoaren eremuan aritu ahal izango dira lanbidean.

2.– Elkargoek elkargoarena ez den beste lurralderen batean aritzen diren profesionalak ezin izango dituzte ezinbesteko baldintza hori, ez gaikuntzarik, ez eta

kontraprestazio ekonomikorik ere, ematen dituzten zerbitzuengatik elkargokideei eskatzen dizkietenak ez badira eta elkargoaren kuotatik kanpo ez badaude.

3.– Elkargoa ez dagoen lurralde batean lanbidean arituz gero, kontsumitzaile eta erabiltzaileen mesederako jarduera profesionala egiten den lurralde horretako elkargoari dagozkion antolaketa-eskumenak eta diziplina-ahalmenaz baliatu ahal izateko, elkargoak beharrezkoak diren komunikazio-mekanismoak erabiliko ditu, bai eta agintari eskudunen arteko administrazio-lankidetzarako sistemak ere, azaroaren 23ko 17/2009 Legean aurreikusitakoak (17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzkoa).

4.– Jarduera profesionala burutzen den lurraldeko elkargoak ezarritako zehapenek espainiar estatu osorako ondorioak izango dituzte.

SOLICITUD DE TRASLADO DE EXPEDIENTE

D./D ^a	
CON DNI N°	
NUMERO DE COLEGIADO/A	DEL COLEGIO PROFESIONAL DE

SOLICITA					
EL TRASLADO DE EXPEDIENTE AL COLEGIO DE FISIOTERAPEUTAS DE					
ANDALUCIA		CANARIAS		CASTILLA Y LEÓN	
ARAGÓN		CANTABRIA		EXTREMADURA	MURCIA
ASTURIAS		CATALUÑA		GALICIA	NAVARRA
BALEARES		CASTILLA LA MANCHA		LA RIOJA	PAÍS VASCO
					COMUNIDAD VALENCIANA

MOTIVO
<hr style="border: 0; border-top: 1px solid black; margin-bottom: 5px;"/> <hr style="border: 0; border-top: 1px solid black; margin-bottom: 5px;"/> <hr style="border: 0; border-top: 1px solid black; margin-bottom: 5px;"/> <hr style="border: 0; border-top: 1px solid black; margin-bottom: 5px;"/>

DATOS DE CONTACTO			
DIRECCIÓN ACTUAL			
CÓDIGO POSTAL		POBLACIÓN	
NUEVA DIRECCIÓN			
CÓDIGO POSTAL		POBLACIÓN	
TELEFONO PARTICULAR		TELEFONO MÓVIL	
EMAIL:			
En		, a	de
Firma del colegiado _____			